AEKren Sagardo Eguna martxoaren 6an izango da, Astigarragan

DV. ASTIGARRAGA

AEKk antolatutako hirugarren Sagardo Eguna martxoaren 6an izango da, Astigarragan. Euskal Herriko hainbat parajetako bi mila lagunetik gora azaltzea espero dira oraingoan.

Euskara-ikasleen halako topagunea izaten da Sagardo Eguna. Eguerdiko 12etan hasiko dira ekitaldiak, ordu horretan ekingo zaiolarik, pilotalekuan, bakailao lehiaketari; ordu bete geroago, trikitilari eta bertsolariek jardungo dute; bazkaria, berriz, ordu bietan hasiko da Astigarragao zenbait sagardotegitan.

Arratsaldeko 6etan musika emanaldia egongo da, herriko plazan, talde hauekin: Txatunba Bembe, Morau eta Joxe Ripau. Hauen jarduna bukatutakoan, erromeria izango da Mundiñano anaiekin, goizeko ordu bata arte.

Beren ekitaldian, Korrikako abesti ofiziala kantatuko dute Joxe Ripiauko lagunek eta Membekoek, Maialen Lujanbio bertsolariarekin batera.